



**June
Fernández**

◆
KAZETARIA

Funtsezko adostasunak

ALDERDI EDO ERAKUNDE ezkertiarren arteko desadostasunen eta zatiketaren karikatura egiteko *Brianen bizitza* filma erabili ohi da: Judeako Populuaren Fronteko kideek azaltzen dutenez, erromatarrak baino Judeako Fronte Popularreko kideak gorroto dituzte gehien. “Disidentek!”.

Feminista gaztea izanik, sarri entzun ditut 80. hamarkadako feminismoari buruzko komentario nostalgikoak: “A ze garaiak! Ehunka emakumek parte hartzen zuten emakume asanbladetan eta manifestazio jendetsuak antolatzen zituzten!”. 90. hamarkadan, abortuaren despenalizazio partziala, dibortzioaren onarpena eta berdintasunaren aldeko erakundeen jaiotza finkatuta zeudelarik, nolabaiteko demobilizazioa egon zen. 80. hamarkadan jaiotakook “berdintasunaren ameskerian” hazi ginen, borrokarako arrazoi argirik ikusi gabe, patriarkatua eraldatzen eta berritzen zihoan bitartean.

Gallardónen dimisioaren ostean, helburu konkretuen aldeko sareen elkarlana mantentzea izan beharko genuke helburu, garaipen feminista berriak lor ditzagun. Horretarako ez daukagu zertan ados egon beharrik gai guztietan. Hori izan da ‘Pikara’ aldizkariaren abilezia

2007. urtean murgildu nintzen Euskal Herriko mugimendu feministan: talde ugari zegoen, eta desadostasun ideologikoen ondorioz, elkarlanak eskasa eta desatsegina zirudien. Batzuentzat, mugimenduaren zatiketa kezkarria zen. Medeak edo antzeko mugimenduko gazteek, ordea, egitura eredu berriak aldarrikatzen zituzten: lagunaren artean edo pertsona bakarrez sortutako “nodo” txikiez osatutako eta interneten bidez konektatutako sareak. Alberto Ruiz-Gallardónek abortuaren legearen kontra egingo zuela agindu zuenean, ulertu genuen ez zela barne eztabaidekin jarraitzeko momentua, lehentasuna kontserbadoreen erasoei elkarrekin aurre egitea zela.

Abortatzeko eskubidearen aldeko plataforman bildu ginen feminista anitz: gazteak eta helduak, abertzaleak eta etorkinak, lesbianak eta *queer*ak, eta lan dotore egin genuen elkarrekin. Prozesu horretan, gure arteko ezagutza eta konplizitatea indartu genituen. Gallardónen dimisioaren ostean, helburu konkretuen aldeko sareen elkarlana mantentzea izan beharko genuke helburu, garaipen feminista berriak lor ditzagun. Horretarako ez daukagu zertan ados egon beharrik gai guztietan. Hori izan da *Pikara* aldizkariaren abilezia, hau da, argi izatea gure arteko desadostasun ideologikoak ez direla oztopo proiektu bateratua bideratzeko. Hala gurera askotariko irakurle erakarri ditugu eta.

Orain dela gutxi estatu mailako emakumeen kongresu batean egon nintzen eta helduen eta gazteen arteko mesfidantza eta errespetu eskaseko jarrera mordoa antzeman nituen. Helduek gure freskotasuna ospatzen zuten komentario paternalistekin, baina ez zuten gure ekarpenak arretaz entzuteko eta barneratzeko –hau da, gure diskurtsoez ikasteko– asmorik adierazten. Onartu behar dut, gazteok askotan era bortitzean esaten diegu euren diskurtsoak zaharkituak daudela. “Klasikoak”, “behi sakratuak” edota “dinosaurioak” bezalako ezizenak erabiltzen ditugu eurekin.

Kongresuan argazki bat atera zidaten Komiki Egileen Elkarte (Asociación de Autoras de Cómic, AAC) Elisa McCausland eta Susanna Martinekin, eta Twitter bidez zabaldu. Honako txioa jaso genuen: “Belaunaldi berriei lekua utzi behar zaie, oso argiak zarete eta”. Susanna Martinen erantzuna asko gustatu zitzaidan: “Hobe lekua konpartitzen badugu, zabaldu dadin”. Erreleboari buruz hitz egiten badugu, ez nau harritzen helduek euren lekua sutuki defendatzeak, ezta gu mehatxu bezala ikusteak ere. Aniztasunaren aldeko defentsa egiten du feminismoak, baina gero kosta egiten zaigu gure antolakuntzan aniztasun hori aberasgarria dela ulertzea eta ikasteko aprobetxatzea. Halakoetan beti ideia ona da *Brianen bizitzaren* eszena berrikustea. ■

